

2016

Gizonduz
Ekimena
2016 ko
memoria



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

01 HITZAURREA

03. Orrialdea

02 2016AN EGINDAKO JARDUERAK

03. Orrialdea

2.1 WEBGUNEA

03. Orrialdea

2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

06. Orrialdea

2.3 JARDUNALDIAK: “GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BOTEREA ERABILTZEKO MODU BERRIAK”

18. Orrialdea

2.4 “GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0” PROIEKTUA

19. Orrialdea

2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTEBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA

20. Orrialdea

2.6 JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

20. Orrialdea

2.7 AHOLKULARITZA

21. Orrialdea

01 Hitzaurrea

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziaztea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea.

Helburuak **Gizonduz ekimena** sortzen duen **agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **2007-2010, 2011, 2013, 2014 eta 2015**.

02 2016an egindako jarduerak

2.1 WEBGUNEA


2016an, webgunea kudeatzen jarraitu genuen helbide berrian (www.euskadi.eus/gizonduz); helburua da gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziaztea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea. Webgunean, ekimenari buruzko informazio ugari aurki daiteke, hainbat euskarritan, bai eta atal hauek ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra gutunari atxikitzeko eremua, eta abar.

2016. urtean zehar, Gizonduz ekimenaren webguneak 22.235 bisita izan zituen. Euskal Autonomia Erkidegotik 8.378 bisita egin ziren 2016an, honela banatuta:



Bisiten % 21,42 Bilbotik egin ziren, % 12,5 Gasteiztik eta % 8 Donostiatik. 22.235 bisiten guztirako kopurutik % 86,04 Espainiatik egin ziren, eta gainerako bititak beste herrialde batzuetatik. Bititak egitean aukeratu zen hizkuntzari dagokionez: erabiltzaileen % 85,13k gaztelaniazko bertsoa erabili zuten, % 2,26k euskarazkoa eta % 0,30k ingelesezkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoa bititak



- Vitoria-Gasteiz
- Bilbao
- Donostia / San Sebastián

2.1.1 BLOGA

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazio erabilgarria proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin lotutako gaiei buruzko iritzia, gogoetak eta iruzkinak aditzera emateko.

2016ko urtarriletik abendura, 69 sarrera kargatu ziren, hainbat kategoriatan, besteak beste: erakundeen ekimenak, gizonen indarkeriak, emakumeen aurkako indarkeria, gizonen taldeak, eta gizonak eta berdintasuna. Gizonduz ekimenaren bloga 2008ko uztailean jarri zen abian eta, harrezkero, 1.003 sarrera kargatu dira.



2.1.2 ELKARRIZKETAK

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsonen egindako elkarrizketak jasotzen dira. 2016an, pertsona hauek elkarrizketatu ziren:

- **Izaskun Landaia Larizgoitia.** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.
- **José Javier Miguel De La Huerta.** Familia Politika eta Gizarte Garapeneko zuzendaria, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
- **Pello Ulazia Ibarzabal.** Artista. Arte Ederretan doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Adierazpen Plastikoaren Didaktikan irakaslea Deustuko Unibertsitateari atxikitako Irakasleen Unibertsitate Eskolan (BAM).
- **Miquel Missé.** Soziologo eta trans ekintzailea. El género desordenado argitaratu du Gerard Coll-Planasekin batera (Egales argitaletxea, 2010).
- **Hilarío Sáez.** Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroko kidea.
- **On:giz elkarte.** Emakumeak eta gizonak elkarrekin askapenaren alde. Artikulu-formatudun elkarrizketa.

2.1.3 SARE SOZIALAK


Gizonduz Facebooken dago 2009. urteaz gero. 2016an, 5.016 lagun zituen batez beste. % 36 emakumezkoak dira, eta % 69 gizonetzkoak. 351 argitalpen egin ziren; eta egunean, batez beste, 803 pertsonak ikusi dute orria.

Gizonduz-ek 1.302 jarraitzaile ditu Twitterren. 2011. urtean guztira 3.379 tuit idatzi ziren. 2016. urtean idatzi ziren, gainera, horietako 1.078.

Halaber, Gizonduz-ek kontu bat du YouTubeen. Berdintasunari eta maskulinitateari lotutako hitzaldien, tailerren eta iragarkien bideoak ikus daitezke web horretan, baita ikus-entzunezko materialak ere. YouTubeko Gizonduz orrialdean 24 bideo daude, eta 2016. urtean 2.390 aldiz ikusi dira bideo horiek.

2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA


2009ko martxoan, Gizonduz-en lehenengo prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa jarri genuen abian. Gizonduz-en prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik 2016ko abendura arte, 11.029 lagunek parte hartu dute ikastaroetan: 6.036 gizonak (% 54,72) eta 4.993 emakumek (% 45,27), hain zuzen.



2.2.1 AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2009tik 2016ra, biak barne, aurrez aurreko 450 ikastaro egin dira (horietako 52, 2016an). 9.339 lagunek parte hartu dute horietan: 5.383 gizonak eta 3.946 emakumeak, hain zuzen.


Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera



Ikastaro horiek honela banatzen dira:

Urtea	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
2009	241	512	753
2010	900	895	1795
2011	638	821	1459
2012	677	768	1445
2013	389	628	1017
2014	375	662	1037
2015	354	467	821
2016	382	630	1012
GUZTIRA	3956	5383	9339

Ikastaro motari dagokionez, 2009tik 2016ra, biak barne eta emandako orduen arabera, hau izan da ikastaroen banaketa:



Ikasleen % 36,12k 2 eta 3 ordu bitarteko ikastaroetan parte hartu dute. % 44,21ek, berriz, 4 eta 10 ordu bitarteko ikastaroetan parte hartu dute, eta % 16,65ek, aldiz, hamar ordutik gorako ikastaroetan.


2016an, halaber, indartu nahi izan dira lanagatik edo gizartean duten agerpenagatik eragin biderkatzailea izan dezaketen pertsonentzako ikastaroak; hala, bertan parte hartzen dutenek aukera izango dute ikasitako edukiak eta egindako gogoetak lan-arloan edo jendartean erabiltzeko. Eragin biderkatzaile hori duten lanetan dabiltzan taldeekin eta pertsonekin lan egiteko erabakiaren ondorioz, ez dira bete programan jasotako prestakuntza-eskaera guztiak; izan ere, eskatutako zenbait ikastarok ez zituzten aipatu baldintzak betetzen. Hala ere, aurreko urteekin alderatuta, iraupen luzeagoa duten ikastaroen portzentajeak nabarmen egin du gora; horrek, bada, ikastaro horien prestakuntza-izaera indartzen du.

2016. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren mendeko Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiarekin lankidetzak jarri da abian. Horren ondorioz, 21 ikastaro eman dira: 12 ikastaro Ertzaintzaren XXV. promozioko langileei zuzenduta, 3 ikastaro akademiako prestatzaileei zuzenduta eta eguneratzeko 6 ikastaro udaltzaingoari zuzenduta. Hori dela eta, ikastaroen ordu kopuruak gorakada nabarmena izan du urtean zehar.

2016ko ikastaroen artean aipatzekoa da prestatzaileei zuzendutako ikastaro berria, 10 ordutik gorakoa; izan ere, beren-beregi onetsi dute parte-hartzaileek. Bestalde, gizarte-zaugarritasun egoeran dauden gizonekin lan egiten duten erakundeetako prestatzaileei zuzendutako 5 ikastaro eman dira.

2016ko Ikastaroak	Ordu kopurua	Orduen %	Ikasleak, guztira	Ikasleen %	Gizonezkoak	Emakumezkoak
2 eta 3 ordu bitarteko 4 ikastaro	7,5	% 1,64	65	% 6,42	50	15
4 eta 9 ordu bitarteko 14 ikastaro	59	% 12,92	209	% 20,65	98	111
10 orduko edo gehiagoko ikastaroak	390	% 85,43	738	% 72,92	482	256
Guztira 49 ikastaro	456,5		1012		630	382

2016ko aurrez aurreko ikastaroak



Erakunde eskatzaileen arabera, hauek izan ziren aurrez aurreko ikastaroak:

Sindikatuekin eta enprekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen taula

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Bizkaia Bahia Gas	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	0,5
Bizkaia Bahia Gas	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	2
AFF	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Zuzendaritza, enpresa-batzordea eta bertako langileak	4
CEBEK	Maskulinitateak, sexu-jazarpena eta sexismoa lan-arloan	Elkartutako enpresak	4
Metro Bilbao	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Enpresa-batzordea eta bertako langileak	4

Berria	Maskulinitateak, sexu-jazarpena eta sexismoa lan-arloan	Kazetariak	5
Euskotren	Sexismoaren aurkako prestakuntza-tailerra: Txutxumtxurik ez!	Bertako langileak	10
Tenneco	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Enpresa-batzordea eta zuzendaritza	12
CCOO	Maskulinitateak eta gizonezkoen indarkeriak	CCOO sindikatuetao ordezkariak	4
CCOO	Maskulinitateak eta gizonezkoen indarkeriak	CCOO sindikatuetao ordezkariak	4
CCOO	Maskulinitateak eta gizonezkoen indarkeriak	CCOO sindikatuetao ordezkariak	4

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroen taula

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Lehendakaritza	Maskulinitateak eta emakumeak ahalduentzeko prozesua	Bertako langileak	3
GUFE, Bizkaiko Aldundia	Maskulinitateak eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa	Bertako langileak	4
Zumaiako Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Talde korporatiboa	4
Bizkaiko Foru Aldundia	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	5
Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Larrialdiak eta Meteorologia	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10

Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Ertzaintzaren XV. promozioa	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10

Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Eguneratzea: Ertzaintza, Udaltzaingoa, SPEIS	10
Bizkaiko Foru Aldundia	Gizonak eta berdintasunezko harremanak	Bertako langileak	12
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Akademiako prestatzaileak	15
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Akademiako prestatzaileak	15
Arkaute akademia	Gizonak, berdintasuna, indarkeria sexistak, erantzunkidetasuna eta arriskua	Akademiako prestatzaileak	15
Gizonduz Emakunde	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrak	4
Gizonduz Emakunde	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrak	4
Justizia Saila Familien topaguneak	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako langileak	15

Elkartekin eta beste hezkuntza-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen taula

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
AGIPAD	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako prestatzaileak	10
Emaus	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako prestatzaileak	15
Lagun Artean	Maskulinitateak eta sexu-jazarpen eta sexismoaren prebentzioa lan-arloan	Bertako langileak	5
Iresgi. Martuteneko espetxea	Indarkeria matxista eta maskulinitateak	Espetxean preso daudenak	12
IZAN. Gizakia Helburu	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako prestatzaileak	12
IZAN 2. Gizakia Helburu	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako prestatzaileak	12
Zubietxe	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako prestatzaileak	15
Donostiako Gurutze Gorria	Prestatzaileen prestakuntza	Bertako prestatzaileak	15
Iparaldeko elkarteak	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrak	2
Gipuzkoako Psikologo- goen Elkargo Ofiziala	Gizonak, berdintasuna eta indarkeria matxista	Kideak	15
Medaro Ikastola	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Irakasleak eta gurasoak	4

Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta (1 da puntuaziorik txikiena, eta 6 handiena). 441 balorazio bildu dira: 149, emakumeek egindakoak; 246, gizonek; 6 beste batzuk epigrafean jasotakoak dira, eta 40 pertsonak ez diote galderari erantzun.

Sexua eta adina kontuan hartuta, ebaluazio hauek bildu dira:

Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera	16-24 urte	25-30 urte	31-54 urte	55 urte eta gehiago	EDE	Guztira
Emakumezkoak	12	48	146	17	2	225
Gizonak	24	113	207	32	9	385
Beste batzuk		10	17	2	1	30
Ez du erantzun	2	5	12	2	4	25
	38	176	382	53	16	665

Ikastaroa egiten duten elkarteek eta erakundeek balorazioen zati bat jasotzen dute; hortaz, ez dira balorazio-multzo honetan agertzen.

Honako balorazio hauek bildu dira (0tik 6ra)

	Emakumeak	Gizonak	Beste batzuk	Batez Bestekoa
Ikastaroaren balorazio orokorra	4,4	4,9	4,6	4,8
Ikasgaiaren inguruan lehendik zeneuzkan ezagutzak	3,4	4,1	3,8	3,8
Edukia	4,2	4,7	4,4	4,6
Hizlaria	5	5,3	5,1	5,2
Dinamizazioa	4,6	5	4,9	4,9
Taldearen partaidetza	4,9	4,9	4,8	4,8
Antolakuntza	4,7	4,8	4,7	4,8
Eremua	4,4	4,7	4,7	4,7
Erabilitako materialak	4,2	4,7	4,6	4,5
Zure bitzitza pertsonalerako baliagarria iruditzen zaizu? (%)	% 96	% 88	% 93	91,4%
Zure bitzitza profesionalerako baliagarria iruditzen zaizu? (%)	% 93	% 84	% 90	87,51%

Galdera irekietan ikastaroei buruzko alderdi positiboak jasotzen dira, besteak beste: erabilitako materialak, eta eztabaida interesgarriak eta haietan parte hartzeko modukoak dakartzan metodologia. Azaldutako teoria eguneroko bizitzarekin lotuta dagoela eta ikasleen errealitate profesionalera egokitzen dela azpimarratu da.

Aurrekoetan bezala, hobetzeko proposamena honako hau izan da: ikastaro luzeagoak egitea, gaiak denbora luzeagoan eta sakonago landu ahal izateko. Bestalde, iradoki da ikasleen eremu profesionalan ere lan hori burutzeko tresna praktikoak jaso eta azter daitezten.

Ikasleek lanari lotutako alderdietan sakondu nahi dute, oro har. Horietako batzuk aipatzearen: gizonekin berdintasuna lantzeko metodologiak eta tresnak, kultura-artekotasuna, gazteen heziketa eta emakumeen aurkako indarkeria.

Ikastaroen gaineko balorazioak aurreko urteetakoan antzekoak izan dira. Oro har esan daiteke Gizonduz ekimenaren barruan eskaini diren aurrez aurreko ikastaroei bete egin dituztela parte hartu duten ikasleen itzaropenak, baita programaren helburuak ere.

Aipatzekoa da, halaber, pertsona batzuek lehenik ere ikastaroren bat egin ostean parte hartu duten arren, partaide gehienek (emakumeen % 89k eta gizonen % 81ek) lehenengo aldiz egiten dutela ikastaro horietako bat.


Ez da desberdintasun nabarmenik antzeman sexuaren edo adinaren arabera galdeketako alderdien gainean egindako balorazioari dagokionez.

2.2.2 INTERNET BIDEZKO IKASTAROK


2.2.2.1 Online sentsibilizazioa

Ikastaro horretan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexuaren arabeko rolerak eta estereotipoek sozializazioan duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspena, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizakion bizitzan duen garrantzia, gizonen etxe-lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan duten parte-hartzea, sozializazio sexistak gizonengan eragiten dituen genero-arazoak, indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina, eta abar.

2009an jarri zen abian, eta 2009tik 2016ra bitartean (biak barne) 695 lagunek ongi bukatu zuten ikastaroa: 29 emakumek eta 260 gizonen, hain zuzen.



**Ikastaroaren balorazioa (6 puntu gehienez);
50 balorazio jaso dira**



	Guztira	Emaku mezkoak	Gizo nezkoak
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako ? BAI	% 95,8	% 100	% 94,28
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? BAI	% 91,58	% 100	% 85

2016. urtean, guztira, 80 pertsonak bukatu zuten ongi ikastaroa: 29 emakumek eta 51 gizonak. Ikastaroaren balorazio orokorra positiboa izan da (4,63 puntu, gehienez emateko 6 puntutik). Ikastaroaren edukiei ere balorazio ona eman zaie: 4,61 puntu.

Azpimarratzekoa da, bestalde, ikastaroa egin duten pertsonen % 95,8k uste dutela ikastaroa baliagarria izan dela beren bizitza pertsonalerako zein profesionalerako.

Ikastaroan parte hartu duten lagun kopuruak ere nabarmen egin du gora aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, 43 pertsonak egin zuten 2015ean, eta 80k, berriz, 2016an. Partaide horien % 63,75 gizonetzkoak izan dira, hots, aurreko urtean baino % 58,1 gehiago.

2.3 JARDUNALDIAK: “GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BOTEREA ERABILTZEKO MODU BERRIAK”

73 lagunek parte hartu zuten jardunaldiotan (40 emakumek eta 33 gizonak). Azaroaren 16an egin ziren, Gasteizen, honako xede honekin: euskal gizartearen hainbat arlotako pertsonak bil-tzea, gizonak batik bat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburu duten estrategiak aztertu, eztabaidatu eta proposatzeko; horretarako, gizonak boterea erabiltzearekin dituzten harremanak eta maskulinitateen egungo osaera mahaigaineratu ziren.

Berariaz, programa hau prestatu zen:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria eta Jarraipen Batzordeko president-e Izaskun Landaida Larizgoitiak aurkeztu zuen jardunaldia. Segidan, “Gizonak, maskulinitateak eta boterea erabiltzeko modu berriak” hitzaldia eman zuen Promundo institutuko zuzendari eta MenCare-ko sortzaile Gary Barker-ek.

Esparru-hitzaldiaren ondoren, hiru lan-talde antolatu ziren:

a) Ekonomia. Koordinatzailea: Tomás Arrieta, Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) zuzendaria. Honako gai hauek jorratu ziren, besteak beste: genero-estereotipoek enpresa- eta lan-arloan duten eragina; ahulgunerik garrantzitsuenak non dauden eta kudeaketa- eta lidergo-eredu berriak non mahaigainera daitezkeen.

b) Politika. Koordinatzailea: Ibon Uribe, Galdakaoko alkate eta EUDEL elkarteko Berdintasun sailko arduraduna. Gai hauei heldu zitzairen, besteak beste: nagusi den maskulinitateari lotutako estereotipoek politika egiteko moduan duten eragina; boterea erabiltzeko egiturak eta moduak nola, non eta zergatik ari diren aldatzen, eta zein arlotan dauden ahulgunerik handienak; eta norantz jo nahi dugun politika berdintasuna ardatz izanik egin ahal izateko.

c) Kultura. Koordinatzailea: Patxi Perez, aktorea. Hainbat gai aztertu ziren, besteak beste: ezagutzaren ekoizpenaren, horren bideen eta hedabideen joera androzentrikoa; betiko maskulinitateek aipatu gertakizuna iraunaraztean duten eragina; non eta zergatik gertatzen ari diren aldaketak.

Jardunaldiari buruzko informazio guztia (bideoak, ekarpenak, balorazioak...) honako **esteka** honetan kontsultatu daitezke.

2.4 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektuaren xedea da nerabeen eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egin dezaten eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarritutakoak.

Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2016. urtean zehar, proiektua eta horren osagaiak frogatu dituzte 6 ikastetxetan. Aipatu prozesuan, ikastetxe hauek hartu dute parte: IES Uribe-Kosta BHIK, Ander Deuna Ikastolak, IES SOPELA BHIK, Urkide Ikastetxeak, Bideberria zentroak eta Egibide Vitoria-Gasteiz zentroak. Irakasleei zuzendutako ikastaroetan 81 lagunek hartu dute parte, 57 emakumek eta 24 gizonek,

hain zuzen ere. Ikasleei zuzendutako ikastaroetan, aldiz, 549 lagunek hartu dute parte, 272 emakumek eta 277 gizonek, alegia.



2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA

Aurreko urteetan bezala, 2016an ere, Gizonduz-en ikastaroez gain, hedapena eman zitzaien berdintasunarekin lotuta eskaintzen diren unibertsitateko masterrei eta graduondokoei eta IVAPen ikastaroei, bai eta Berdintasunerako Foroak antolatutako jardueri ere, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan gizonen partaidetza areagotzeko xedearekin. Horretarako, publizitatea eman zitzaien Gizonduz-en webgunearen eta sare sozialen bidez.

2.6 JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Hauetan, adibidez:

- Parisen antolatutako nazioarteko topaketa, Europako GEMMA proiektuaren baitan; horren helburua zen Europako emakume migratzaileek eta gutxiengo etnokulturalek pairatzen duten indarkeriari erantzutea.
- “Gizonak indarkeria matxisten aurka” izeneko jardunaldiak; Sevillan antolatu zituen berdintasunaren Aldeko Gizonen Foroak.
- Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Psikologia VIII. Jardunaldiak, Psikologoek Elkargoak antolatuak.
- Gure Balioak 2016 sari-banaketa, Debarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarrekin (DEBE-GESA) antolatua.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean aritu ginen “Aldea eragiten duten aitatasunak” izeneko jardunaldiak antolatzen eta horietan parte hartzen.

2.7 AHOLKULARITZA

Azkenik, 2016an, 350 kontsultari erantzun zitzaizkien, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuek.



Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz

Tel 945 01 67 00

Mail emakunde.gizonduz@euskadi.eus

